



Villabonako Udala



Berria taldekoek Berriaren egoera kezkarria dela eta, bilerak egiten ari dira herriz herri euskarazko hedabide honen egoeraren berri emateko. Gurean ere euskalgintzako eragileekin bilera bat egin nahi zutela adierazi ziguten. Horrela, Euskaran Ados lan-mahaian aztertu genuen gaia eta bilera bat deitzekotan geratu ginen Berriako ordezkariekin.

Euskaran Ados lan-mahaia bildu zen urri bukaeran, eta bertan, Berriako ordezkariak azken hilabeteetako gorabeheren berri eman zigun. Euskaraz bizitzeko kezka dutenekin bildu eta proiektuaren berri ematen ari dira. Proiektu honek iraungo badu, guztion parte hartzea beharrezkoa izango dela azpimarratu zuen. Berrialagunen komunitatea behar beharrezkoa izango da aurrerantzean ere, argi baitute euskaldunen komunitateak dituen interesei eta beharrei erantzuten jarraitu behar dutela.

Lan-mahaian gure herriak Berriari laguntzeko zer egin genezakeen aztertu zen, eta horrela, urtarrilean zehar gai honi lotuta zenbait ekintza burutzea proposatu zen. Herriko kultur eragileekin hitz egin zen jaialdi bat antolatzeko eta denak prest agertu ziren.

Berria komunitatearen aldeko ziztada egitasmoaren inguruan egingo den hitzaldia eta jaialdia.

*Amasa-Villabonak ziztada Berriari* lemapean gauzatuko antolatuko den egitarauan bi ekintza nagusi aurreikusten dira:

- Urtarrilaren 9an, Martxelo Otamendiren hitzaldia Subijana etxean (Mintzolan).
- Urtarrilaren 11n, Berriarentzat dirua biltzea helburu duen jaialdia. Bi saio egingo dira, bat 19:30ean eta bestea gaueko 22:30ean. Jaialdian honako kultur eragileek parte hartuko dute: Oinkari dantza taldea, Loatzo musika eskola, Eresargi Abesbatza, Eresargi gazteak, Harituz Tolosaldeko bertsozaleen elkargunea, Lain musika taldea.

Jaialdi honetan jasotako dirua Berria komunikazio taldeari laguntzeko izango da.